



■ 2. SARRERA METODOLOGIKOA

2.1 Telefono bidezko inkesta

2.1.1 Populazio lagina zehaztea

Lan honen helburua da Euskal Herrian eta Euskal Herriarekin muga egiten duten lurraldeetan bizi diren biztanleen mugikortasuna ezaugarritzea.

Horretarako, etxez etxeko inkesta egin zaie Euskal Autonomia Erkidegoan eta eragin eremu hurbilenean bizi diren 5 urtetik gorako pertsoneri, adin txikikoen informazioa arduradunen bidez lortu delarik.

Jasotako informazioa bost minututik gorako iraupena duten desplazamendu motoarizatu eta ez motoarizatu buruzkoa da, salbu-eta lana edo ikasketak direla-eta egiten direnak, horiek guztiak jasoko baitira (bidaiaren iraupena gorabehera).

Laginketa plana honako ildo hauei jarraituz egin da:

- **1. LAGINKETA ALDIA.** Euskal Autonomia Erkidegoa egituratzen duen eremu bakoitzean dagoen biztanle kopuruaren (zuzenbidezko biztanleria) arabera finkapen proportzionala. Era berean, eremu bakoitzari dagokion laginketa bertan diren zentsu atal bakoitzean bizi diren biztanleekin proportzionalki banatu da, eta zentsu atal horiek ausazkotasun irizpideen arabera hautatu dira.
- **2. LAGINKETA ALDIA.** Eremu bakoitzeko laginketa unitateak zozketa sistematiko bidez eta ausazko aterakuntzaz hautatu dira, zeuden telefono bidezko datu baseetatik abiatuta.

Osagarri gisan, eta Euskal Herritik kanpora gertatu arren Autonomia Erkidegoarekin lotura estua duten bidaiak kalkulatzeko helburuaz, etxez etxeko inkesta bat egin da, eta horretarako jarraitu den eredia Autonomia Erkidegoan bizi direnei egindako inkestarako erabilitako berbera izan da. Horretarako, honako eremu hauek zehaztu dira:

- **A eremua:** Bizkaiarekin muga egiten duen Kantabriako eremua, A-8aren bitartez lotua dagoena, batez ere Castro Urdiales, Laredo eta halako udalerriak.
- **B eremua:** Menako Bailara, EAErekin BI-636aren bitartez lotua dagoena.
- **C eremua:** Miranda de Ebro inguruko eremua, Arabarekin mugakidea dena, eta Arabarekin N-1aren eta A-68aren bidez lotua dagoena.
- **D eremua:** Arabar Errioxarekin muga egiten duen Errioxako eremua, A-68 ardatzean dauden Haro eta Logroño hiri esanguratsuak kontuan hartuta.
- **E eremua:** EAErekin erlazio zuzenena duen Nafarroako eremuak, hala nola Altsasu (N-1aren bidez lotua), Bera N-121Aren bidez lotua).

- **F eremua:** Gipuzkoarekin mugakide diren frantziar lurraldeak; horien artean esanguratsuena, Hendaia, EAera N-1aren eta A-8aren bidez lotua dagoena.

2.1.2 Telefonoz egindako inkestak hedatzea

Telefono bidezko inkestan jasotako emaitzak aztertutako biztanleria osora goratzeko, zera egin da:

- a) Hasierako goratzaileak lortu (familia unitateari dagozkionak eta, honenbestez, familiako kide bakoitzari aplikagarriak).
- b) Bukaerako goratzaileak lortu (hasierako goratzaileen zuzenketa faktorea sartuta). Prozesu honi jarraiki, ez dira zenbaki osoak lortzen. Kontutan izanik ez dela bidezkoa desplazamenduak dezimalez adieraztea, hedaketak borobildu egin dira. Hau dela eta, taula eta grafiko batzutan "guztira" atalean agertzen den zenbakia ez dator guztiz bat batuketarekin.

Geruza bakoitzari dagokion unibertsoetik eta jasotako laginetik abiatuta, gorapen koefizienteak zehazteari ekin zaio, honako aldagai hauekin:

- Adina..
- Jarduerarekiko egoera.

"Jarduerarekiko egoera" aldagaia erabiltzea funtsezkotzat jotzen dugu, zeren eta telefono bidezko metodologiak pertsona ez okupatuetara errazago iristea baitakar, eta alborapen hori ahal den neurrian arindu da landa lanean zehar, ordutegiak doitu eta pertsona okupatuen kolektibora iriste aldera.

Hedapena sexu eta adinarekin bakarrik egin izan balitz, inkestaren emaitza lerratua izango litzateke, zeren ez bailuke islatuko behar den moduan pertsona "aktiboen" mugikortasunarekiko eragina, kolektibo horrek desplazamendu gehiago eta distantzia luzeagokoak egiten baititu.

Ondoren goratzaile horiek mugikortasun motoarizatuan behatutako mugikortasun arauekin zuzendu dira.

2.1.3 Laginaren egitura eta landa lana noiz egin den

Bidaiariei egindako telefono bidezko inkestaren landa lana 2006ko urria eta azaroan egin zen. Kanpaina horren ostean, inkesta gehigarri bat egin da 2007ko otsaila eta martxoan, lehenengo datu bilketan lortutako emaitzak hobetze aldera. Inkesta gehigarriak EAE barruan nahiz kanpoan (eremu mugakideetan) egin dira. Horiek hala, ikerketa honetan egiten den EAEko biztanleen mugikortasunari buruzko ezaugarritzea eta aurkezten diren datuak 2006. urteari dagozkio.

Guztira 12.335 inkesta egin dira 7.424 etxetan.

Jarraian datorren taulan, jasotako laginaren eremu desagregazioa azaltzen da.

Taula 1

Telefono bidezko inkesta laginaren egitura – pertsonak.

Lurraldea	Inkestak	Lagin errorea
Bizkaia	5.715	e=±1.3%
Araba	1.564	e=±2.5%
Gipuzkoa	3.319	e=±1.7%
GUZTIRA EAE	10.598	
A eremua: Bizkaiarekin muga egiten duen Kantabriako eremua	273	e=±6.0%
B eremua: Menako Bailara eta C eremua: Miranda de Ebro inguruko eremua	386	e=±5.0%
D eremua: Arabar Errioxarekin muga egiten duen Errioxako eremua	126	e=±8.8%
E eremua: EAErekin erlazio zuzenena duten Nafarroako eremuak	70	e=±11.9%
Mugaz haraindi	882	e=±3.9%
MUGAKIDEAK GUZTIRA	1.737	
TELEFONO BIDEZKO ELKARRIZKETAK GUZTIRA	12.335	

Taula 2

Telefono bidezko inkesta laginaren egitura - etxeak

Lurraldea	Etxeak
Bizkaia	3.677
Araba	1.206
Gipuzkoa	1.620
GUZTIRA EAE	6.503
A eremua: Bizkaiarekin muga egiten duen Kantabriako eremua	127
B eremua: Menako Bailara eta C eremua: Miranda de Ebro inguruko eremua	284
D eremua: Arabar Errioxarekin muga egiten duen Errioxako eremua	57
E eremua: EAErekin erlazio zuzenena duten Nafarroako eremuak	29
Mugaz haraindi	424
MUGAKIDEAK GUZTIRA	921
TELEFONO BIDEZKO ELKARRIZKETAK GUZTIRA	7.424

2.2 Kordoi inkesta

2.2.1 Kordoi inkestaren helburuak

Neurketa eta kordoi inkestek hainbat funtzio daukate:

- Pasoko fluxuak identifikatzea, zeren eta horiek ez baitira detektatuko Euskal Herrian bizi diren pertsonetan zentratutako telefono bidezko inkestetan.
- Fluxu "Erakarriak" identifikatzea, jakinik horien jatorria EAetik kanpo dagoela eta helburua, berriz, EAE barruan. Eremu mugakideetan izan ezik, inkestek ez dute fluxu horiei buruzko informazioa emango.
- Inkestetan identifikatuko diren mugikortasunari buruzko datuak doitzeko kontraste eta erreferentzia gisan baliagarriak izango dira, hau da, Sortutakoak (jatorria EAEn eta helburua kanpoan dutenak), eta Barnekoak (jatorria zein helburua EAE barruan) doitzeko.

Lehenengo eta bigarren funtzionalitateei dagokienez, inkestak ezin ordeztuzkoak dira, dagoen informazio gehigarria partziala baita eta, gainera, inkestetan jasotakoarekin homogeneizatzeko zaila, datuak bildu ziren urtea, zonakatzea, ibilgailuen sailkapena, bidaiari mota eta halako alderdiei dagokienez.


Kordoi inkestean hirugarren funtzionalitatean, hau da, telefono bidezko inkestetan bildutako mugikortasun datuen kontraste gisara baliatzeari dagokionez, bai dira ordezkagarriak, zeren eta aipatutako kontrastea trafikoei buruzko (Aldundien neurketak) eta Garraio Publikoaren Erabiltzaileei buruzko datuetatik abiatuta egin baitaiteke.

"Ausazko ateratze" aukera, errepide batean dabilzan ibilgailuentzat erabilia, borondatezko geldiunea egiteko lekuak erabiltzeko aukera da (gasolindegia)

Bi kordoi maila ezarri dira: Euskal Herritik kanpoko kordoi bat eta lurralde historikoen arteko kordioak. Jarraian datorren mapan, kordioetan sartutako guneak azaltzen dira, zein bere zenbakiarekin bereizita.

Grafikoa 1

Inkesta guneen kokalekua



2.2.2 Laginaren egitura eta landa lana noiz egin den

Landa lana 2006ko urriaren 4a eta 2006ko abenduaren 19a bitartean egin da (aipatutako egun biak barne) eta guztira 12.817 inkesta egin ziren ibilgailu arinen artean.

Jarraian azaltzen da hala ibilgailu arinei nola astunei egindako inkesta kopurua inkestak egiteko gune bakoitzean:

Taula 3

Telefono bidezko inkesta laginaren egitura - etxeak

Kontrol gune zk.	Inkestak ARINA KORDOI
01 Ugaldebieta	1.340
02 El haya	93
06 Balmaseda	621
15 Behobia	1.255
16 Santiago Zubia	957
17 Irungo ordainlekua	581
20 Pagozelai	670
24 Puntxas	235
25 Olaona	798
26 Altsasu	607
27 Kanpezu	82
28 Birgala	25
30 Luko	905
33 Argantzun	884
34 Igai	665
35 Biasteri	582
36 Areta	1.168
37 Altube	338
38 Durango	921
39 Kanpanzar	28
40 Berriz	6
Inkesta kopurua Guztira	12.817

Inkestekin batera eta gune berberetan, ibilgailu arin eta astunen neurketa egin da, eta informazio hori inkestan jasotako datuen hedapenak kalkulatzeko erabili da.

2.3 Terminoen glosarioa

- **Metroapoli area:** hainbat udalerrik osatutako esparru geografikoa, non elkarren arteko interrelazio sozial eta ekonomiko ugari gertatzen den. EAEn badira hiru metroapoli area: Bilbo Handia, Donostialdea eta Arabar Lautada.
- **Eskualdea:** EUSTATEk zehaztutakoak.
- **Desplazamendua:** pertsona batek, tartean xede edo motibo bat dela-eta, sorburu batetik helburu batera egiten duen mugimendua. Desplazamendu batek motibo bakarra du (edo behintzat motibo nagusi bakarra). Motibo aldaketa orok beste desplazamendu bat dakar. Hori dela eta, desplazamendu batean sorburura itzultzea hasierakoaren bestelakotzat jotzen da.
- **Eskualde barruko desplazamendua:** sorburua eta helburua eskualde berean daudenean.
- **Probintzia barruko desplazamendua:** desplazamenduaren sorburua eta helburua probintzia berean daudenean.
- **Udalerrri barruko desplazamendua:** desplazamenduaren sorburua eta helburua udalerrri berean daudenean.
- **Lurralde arteko desplazamendua:** bidaiaren helburua, sorburu probintzia ez den EAEko beste probintzia batean dagoenean.
- **Kanpo desplazamendua:** EAEko edozein puntutatik autonomia erkidegotik kanpoko beste leku bateraino egiten den desplazamendua.
- **Desplazamenduaren helburua:** desplazamendua egiteko motibo nagusia betetzen deneko (edo bete daitekeeneko) lekua.
- **Desplazamenduaren iraupena:** desplazamenduaren sorburutik helburura iristen emandako denbora.
- **Desplazamenduaren etapak:** desplazamenduaren zati bakoitza, operatzaile berak garraio bide edo zerbitzu bana erabiliz egindakoa. Desplazamendu oro etapa batek edo gehiagok osatua dago. Garraio publikora oinez joan edo itzultzea ez da etapatzat jo.
- **Gestio pertsonalak:** dokumentu honetan, gestio pertsonaltzat jotzen dira beste pertsona batzuei egindako bisitak eta hirugarren pertsona baten ordainsari zuzenik jaso gabeko enkarguak egitea, esate baterako: medikuarenera joatea, beste pertsona bat eramatea...
- **Etxea:** bizileku nagusi batean bizi edo bizileku horretan egoten diren pertsona guztiak, haien arteko ahaidetasuna gorabehera. Kontuan hartzen da etxe batean bi familia edo gehiago egon daitekeela, baldin eta elkarren artean ahaidetasun harremanik ez duten bi talde familiar edo gehiago badaude (etxe familiariztuna).
- **Informatzaile familiar edo nagusia:** galdetegi familiarreko galderei erantzun dien pertsona. Inkesta egiteko moduko pertsona da eta 18 urtetik gorakoa.
- **Garraio modua:** desplazamenduaren etapa bakoitzean erabilitako garraio sistema da. Hauek dira kontuan hartu diren garraio moduak: oinez ibiltzea, bizikletaz, ibilgailu pribatuz (gidari nahiz bidaiaria), taldeko garraioa (trena, autobusa eta beste) eta beste batzuk (banaketak egiteko furgonetak, igogailuak etab.).
- **Garraio modu motoarizatuak:** propulsiarako trakzio sistema propioa daukaten eta kanpoko energia iturriak darabiltzaten garraio bideak dira. Definizio horren barruan sartzen dira autoa, motozikleta, hiribusak, hiriarteko autobusak eta diskrezionalak, trena, tranbia, metroa eta hegazkina.

- **Taldeko garraio moduak:** dokumentu honi dagokionez, berezi dira errepidean dabilzan taldeko garraiobideak, autobusa barne (hiribusa, hiriartekoa eta diskrezionala), trenbidean dabilzanak, hau da, trena, tranbia eta metroa, eta hegazkina. Garraiobide eta zerbitzu publiko nahiz pribatuak sartzen dira, esaterako, autobus diskrezionala.
- **Banakako garraio modua:** Dokumentu honi dagokionez, banakako garraio moduak dira garraio modu pribatuak. Hau da, autoa, motoazikleta eta taxiaa.
- **Garraio modu ez motoarizatuak:** propulsiarako kanpoko energia iturririk ez darabilten garraiobideak dira. Definizio horretan sartzen dira oinezko modua eta bizikleta.
- **Udalerria:** EUSTATEk jasotzen dituenak.
- **Desplazamenduaren sorburua:** desplazamendu bat hasten den tokia da. Normalean izaten da etxea edo aurreko desplazamenduaren helburua.
- **Aisia:** atal honetan jasotzen diren desplazamenduak ez daude egituratuta, eta honelakoetan helburua izaten da aisialdian jardura ludikoak egitea. Atal honetan sartzen dira, besteak beste, zinera joatea, erakusketetara joatea, oporregatiko desplazamenduak...
- **Etxebizitzan bizi ohi dena:** etxebizitzan hiru hilabetetik gora bizitzen daramanari esaten zaio, edo etxebizitza horretan ohiko bizilekua finkatu nahian dabilenari. Baldintza hauetako bat gutxienez betetzen zuten pertsonak inkesta egiteko modukotzat jotzen ziren. Etxebizitza batean bizi diren inkesta egiteko moduko pertsonak izan daitezke elkarren ahaideak eta izan daitezke ahaidetasunik gabeak.
- **Motoarizazio tasa:** automobil ratioa 1.000 biztanleko.
- **Garraio publikora iristeko behar den denbora:** desplazamenduaren sorburutik garraio publikoko geltokira oinez iristeko behar den denbora.
- **Garraio publikotik itzultzeko behar den denbora:** garraio publikoaren azken geltokitik desplazamenduaren helburura iristeko behar den denbora.
- **Lana:** lanak jasotzen duena da produkzio jardura ordaindu batean aritzea, eta ikerketa honetan lanaren eta negozioen arteko batura da.